

KRISTAU BATASUNA

Aurreraka edo atzeraka, geldi edo ibilli, or daukagu batasuna kristau-kontzientziari tinko keiñuka. Itxasoak lez, batasun orrek beerakadak eta gorakadak euki daukaz, baiña olatuak bata bestiei bultzadaren bultzaz ondartzaraiño eltzen diran lez, «Guztiok bat izan daitezala, Zu, Aita!, nigaz eta ni zugaz bat gareanez, eurok be bat izan daitezala gudan, Zeuk bialdu nozula munduak sinistu dagian» (Itzok Jaime Kerexeta'ren «Alkartasun Barria»-tik jaso ditut) (Yon, 17,21), Jaunaren deadarrari erantzuna emotera bultzaten dautse batasunak kristiñauiei. Ezin leiteke gogo ori bete or-konpon egoeraz.

Oiñarrizko Batasuna

Batasun au ez da ezerezetik sortu bear dan zerbait. Kristau-taldeak funtsezko batasuna lortuta daukela esan geinke. Ainbeste egi batera siñisten dogu. Beste gauzen artean, onexek dira onartzen doguzanak: Jaungoikoaren berbea Itun Zar eta Barriko liburuetan agertzen dala; Jesukristo dala Eleizearen Jaun eta Jabe, asiera ta amaia; Irutasun doatsua; Espiritu Santuaren eragiña bai Eleizean bertan bai bakoitzaren barnean.

Batasun orreri barneko edo gogozko batasuna deritxoke. Kristiñau batzuen eritxiz, batasun au naikoa dala dirudi, Jesus'ek berak ez ebalu geiagorik eskatu diñoe-ta.

Kristiñau geienak, barriz, ortik aurrera egin nai leuke. Ba-

rrutikoak asi ta, kanpora ataraz, batasuna munduaren begietan argi ta garbi agertu bear dala eskatzen dabe.

Agiriko edo azalezko Batasuna

Ez dira izan gitxi elburu au jadesteko egindako aalegiñak. Elburua bera jadesteko urrin gagoz oraindik, baiña urratsak alde guztietatik artuak izan dira, eta arazo oneri optimista lez begiratzuz, «ontzia erdi utsik baiña erdi beterik dagoala» esango neunke.

Leenengo baten, or daukagu «Eleiz Kristiñauen Alkartea». Bere aurka jagi diranak ba dira, baiña Alkartek lan ederrak egin dauz, batez be kristauak alkar obeto ezagutzeko aalegiñetan eta laguntasun-ekintzetan. Erakunde orrek mixiño-errietan batera jokatzeko emon dabezan errestasunak benetan txalogarriak dira.

Urte askotxotan Erroma'ko Eleizea Alkarte onetatik at geratu zan. Gero, begiralle lez sartu zan, eta an jarraitzea dau guztien errespetua lortuaz eta bere eritxiak begirunez jasoaz.

Len esan dogunez, ba ditu Alkartek bere aurka jokutzen dakienak, batez be dotriña-batasunean aurrerantzarik ezin lei-kealako egin-eta. Beste aldetik, ekintzan ere Alkartek ez dabela ondo jokatu, - adibidez, irugarren munduko iraultzei laguntza eskuratuz, jokabide orrei txalo joten deuselako, eta ezkertiarren geiegikerien aurka ixillik geratzen diralako, besteak beste - leporatuten deusoe.

Alkarte onen partaideak ez dira protestanteak bakarrik; Katoliko ez diran Sortaldeko kristiñauak ere or dagoz sartuta. Dotriñan osorik bat ez etorri arren, Kristo'ren irakatsiak Alkartea lagun-urkoarenganako maitasun-ekintzetara eragiten dau, nai ta, askoren eritxiz, bide okerretik ibilli.

Erroma'ko Eleizearen jokaera

Batasuna aurreratzen iñoiz baiña zoliago agertzen jaku

Erroma'ko Eleizea. Ain zuzen be, bera bitarteko dala, Kristau-Eleiza nagusienak batera etorteko naia erakusten dabe.

Konstantinopla'ko azkenengo Patriarkak artu dabezan pau-soak ezagunak dira. Erroma-aldetik Juan XXIII, eta batez be Pablo VI eta Juan Pablo II.gnak, erantzun anaikor eta beroa emion dautse edegite onei. Orañarte iñoiz ikusi etziran besarkadak eta alkarrenganako maitasun-agiriak azkenengo urteotan ugaritu diranez, batasun-giroa ta geroa aurpegi alaitsuagoaz ikusten dogu.

Ixillago, baiña sakonago, batasun-arloa lantzen dabilten alde bateko eta besteko kristiñau eleiz-jakintsuen lanak frutu iraunkorrakoak ekarriko dauskuez, ezbai barik. Euren ekiñaldiak ez dira ain ezagunak, tarteka datozelako edo baita gaiak eskatzen, dabezan goi-mallako itz eta izkuntzan borobilduak diralako-edo. Batzarretan gizon jakintsuok ondo zeztuten dakiez gauzak, eta eurok diñoena, edo ixillean itxiten dabena, eragin andikoak dira. Alkar-agirien iragarpenak erakusten deuskuen lez, kristiñauak uste genduan baiño urbillago gagozala jakiteak bene-benetan arrituten gaitu.

Baiña goi-mallako jakintsuak bakarrik ez dabe osotzen Eleizea. Gu ere, be-maillako kristiñau gareanok, zer esan andia daukogu zeregin onetan. Batasunaren premiñak ez gaitu kezkatzen, bearbada. Zer-edo-zer entzun dogu, bai, eta gure aldetik ez da oztoporik sortuko, baiña eragin eskasa somatzen da gure artean, Bilbo'n-edo izan ezik. Gure inguruan Katoliko-ez diran Kristiñau banaka batzuk bakarrik daukaguzalako izango da, agian. (Kristiñauak ez diranak, bai, ugaritzen dabilkiguz, eta eurrekin alkar-artuemonetan sartzea beste bearrezko arazoa izango jaku).

Batasunaren aurkakoak, iñor ba'da beintzat, ez jake aurpe-girik ikusten. Egoera orrek auxe iragarri leuskigu: edo gure aldetik ez dala eragozpenik jarriko, edo ez gareala auziaz konturatu. Guztion arazoa danezkero, gure erria kontzientziaratuteko zerbait egin bear genduke.

Geroak zer diñoskegun

Ez dogu uste izan bear Kristau-Batasuna or bertantxe eginda aurkituko dogula. Zoritxarrez, bata-besteagandik luza-roan banatuta ibilli gara. Kondairan zear naaspilla ta alkar-ezinikusia nagusi izan dira. Askotan gerrak alkartu gaitue, baiña alkarren lepoak mostuteko ain zuzen ere. Orregaitik, ezin geinke beste barik «emen ez da ezer jazo» edo «joanak joan» pentsa ta esan egin.

Pixkaka-pixkaka alkar obeto ezagutuaz, urratsez-urrats aurrera ekin bearko dogu. Gero, geroak eskuratuko dausku batasun osoa.

Nik neuk, erdi-amesetan jardunaz, onela ikusten dot zelan etorri leikean batasun ori.

Asi gaitezan daukagunaz. Leenengo, «Kristiñau Eleizen Alkartasuna» aukeratuko neunke. Asieran esan dodanez, berez erakunde orregaz ez dogu aurrera andirik egingo dotriñan, baiña Kristo'ren irakatsietan oiñarriturik alkar-maitasunaren inguruan lan ederra egiten dau. Lan ori sendotu ta zabaldu egiten jardun dagiala, batasun praktiko bat lortuarte. Nire ustez, Alkarteak Eleiza osotuaren edo batuaren gobernua lez jokatu leike, Eleizak daukozan ainbeste erakunde egin-erasle biurturik.

Bigarren, or daukagu baita Erroma'ko Gotzaiña edo gure Aita Santua. Askoren eritxien aurka, nik ez dot uste Aita Santua batasunerako oztopoa izan leikeanik. Alderantziz, bera izango dogu Batasunaren ikurra ta biltokia. Baieztatu nai neunke eritxi au.

Begiratu daigun Sortaldeko Kristiñau-Eleizen jokabidea. Angoak ez dabe iñoiz ukatu Erroma'ko Buruak Eleizan leenengo postua daukola. Bearbada, eguneroko artu-emonetan orrek ez dau zerikusi andirik euki, eta ain zuzen ere, olan jazo da

oraintsuarte. Baiña, azken urteotan gauzak aldatu dirala esan geinke. Sortaldeko toki guztietatik agertu dira Erroma'n Eleiza-ko Nagusiak Erroma'ko Gotzainagaz batera eleizkizunak ospatzen, eta agirien bidez euren arteko anaitasun-ezaugarriak erakusten. Euren aoetan ez dirudi Aita Santuari «Anai Nagusia» deitzea deitura utsa. Euren arbasoengandik jasotako deitura da au.

Len aitatu dodaz Konstantinopla'ko Patriarken eta Erroma'ko Gotzainen artu-emonak.

Konstantinopla'tik gainera be, ezin daikaguz aztu gaur Mosku'ko Patriarka dan Pimen agurgarriak bere aldetik, beste gauzen artean, Juan Pablo II'gnak bakearen alde daroan jokabidea biotz zabalez eta gogo onez artua izan dabela.

Ez ain ezagunak, baiña or dagoz beste Patriarka batzuk ere: Egipto'n Alejandria'ko Koptoena; Siria'n Antiokia'ko Siriarrarena-eta. (Kontuan artu bear da Alejandria'n eta Antiokia'n Patriarka bat baiño geiago dala). Orreik ere Erroma'ra jo dabe, eta arrera ona artuta gero, batasun-itxaropena sendotuta doala ikusten da.

Mendebaleko Eleiza Protestanteak ere ez dira atzera eginda geratu. Euren artean ez dabe ezagutzen Buru bat bakarra. Orre-gaitik, bearbada, guztien bozemoille baten billa dabiltzala dirudi, eta Erroma'n aurkitzen dabe bozemoille bakar ori. Ortik datoz euren Batikano'runtz eta Batikano'tik joan-etorriak.

Sortaldeko ta Mendebaleko Eleizen bitartean datzan Eleiza batek, Ingalaterra'koak, emoten dausku iduririk aurreratuena batasun-ekintzan. Izan ere, ikuspegi geienetan berau dogu Eleiza Katolikoari urbillena. Eleiza orretako Buru dan Erregiñatik asi ta, Gotzain Nagusien eta teologoen zear, eleiz-errirraño Erroma ikusten da batasunaren biltokia lez.

Urratsak dira oneik, ez andiak, esango neunke, baiña egunen batean batasun osora eroango gaituenak.

Batasun-urratsak ez dira alde batean bakarrik emoten. Erroma'n ez dabiz bakarrik batzen, emoten ere ba dakie an.

Neure amesetan jarraituaz, batasun osoak Eleizeari aldakuntza sakonak erakarriko dauzala dakust.

Alde batetik, Erroma'ko Gotzaiña Eleizako Buru lez jarraituko dau, baiña bere agintaritza era-barriztuko da, lengo eleiza berezietatik ekarritakoekin aberastuaz. Beste aldetik, batasunera joten dabeneleizak euren berezitasuna, batasuna apurtzeke, gordeko dabe. Alde bietatik antolaketa barriak egingo dira.

Aldez aurretik antolaketa orreik zelakoak izango diran nire partetik erakustea, igarle oker baten asmakizuna izango litzake.

Eleiza bere osotasunera Jesus'en Espirituak zuzenduko dau. Esku onetan dago arazo au.

Joseba Zubikarai



ESTUDIO
FOTOGRAFICO

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*

San Miguel kalean, 14
Urrut: 673 0509
AMOREBIETA

Trañabarren-Bloque, 1-4-13
Matiena - Abadiano